



Eta zuk, hemen, ¿zer marrazten duzu?

ARTE JAURDUNALDIAK

2018KO ABUZTUAK 28 ETA 29 PALACIO JAUREGIAN, IRURITA, NAFARROA

ARTE JAURDUNALDIAK



2018KO ABUZTUAK 28 ETA 29 PALACIO JAUREGIAN, IRURITA, NAFARROA

Aurkezpena

Bere formakuntza arte jakintzagaietan hastean, gazte askoek talentua ote duten galdetzen diote bere buruari, eta talentu hori nahikoa izango ote den arte munduan ezagunak izatera iristeko. Internet denon eskura dagoen tresna bat den arren, ez du zeren gure lana erakusteko bide seguru bat izan behar beti. Orduan, nola bihur gaitেকে ikusgai gure bezero izan litekenarentzat?

Arte jaurdunaldiak talentudun gazteen eta esperientzia handiko profesionalen arteko zubia nahi du izan. Bi egunetan zehar, bertaratutakoek haien zalantzak eta zailtasunak ezagutaraziko dizkiete sektoreko profesionali elkargune atsegin honetan, eta haien sektore eta interes berdineko gazteak ezagutzeko aukera izango dute.

Gonbidatuen artean hiru profesional ezagun izango ditugu:

Lucie Geffré, Madrilen aurkitzen den Frantziako Akademian, Casa de Velázquez-en bizi ondoren, Espainian gelditu den artista frantsesa. Bere lana Salón de Otoño-n izan da saritua, baita Madrilgo Círculo de Bellas Artes-en ere. Royal Society of Portrait Painters-en Londreseko las Mall Galleries-en Londres eta Parisen egon dira bere lanak ikusgai. Bere erretratuetako bat Madrilgo galeria iraunkorrean parte hartzera sartu da.

José Luis Franchez Apezetxea, Príncipe de Viana-ko arkitektoa, Nafarroako ondare arkitektonikoak diren hainbat eraikin monumentaletan kontserbazio eta zaharberritze lanak bideratu eta proiektatu dituena.

José María Hualde y Ruiz De Gámiz, bildumagile eta arte maitalea. Palacio jauregiko zaharberritze eta doitz lanei ekin ziena, etxe familiar historikoa, hura bera bizi den eta erakusten duen tokia.

2018KO ABUZTUAK 28 ETA 29 PALACIO JAUREGIAN, IRURITA, NAFARROA



Hartzaileak

Arte jaurdunaldia arte jakintzagaileen ikasle direnei dago bideratuta, esate baterako Arte Plastikoen Batxilergoko ikasleei, Arkitektura Eskolei, Arte Ederrei, Gizarte Lanen ikasleei, Diseinukoei, Arte Historiakoei eta honelako beste hainbat gaiei. Bestalde, zaletasuna edo lanagatik arte plastikoei ekiten dion beste edozeini ere dago bideratuta.

Izen ematea

Jaurdunaldietara etortzeak 83€ko kostea izango du. Honek, antolatuta dauden ekintza guztietara joarteko aukera emango du, baita 28ko bazkari eta afarira ere. Lekualdaketa eta ostatua ez dira prezio barnean sartzen.

Partehartzaileen onarpena inskripzio ordena jarraituz erabakiko da. Edonolako irregulartasunen aurrean Patrimonio para jóvenes-eko kideek eta mezenek lehentasuna izango dute. Onetsitakoei kurtsora eraman behar duten materiala jakinaraziko zaie.

Lehenengo, aurretiko izen ematea izango da. Une horretan bertan interesatuak haien plaza eskatu ahal izango dute, maiatzak 1etik ekainak 30era arte, toki limitera iritsi arte. Aurretiko izen emate hau 45€ ordainduz egingo da, eskuinean erakusten direnetako Patrimonio para jóvenes-en kontu korronte batera.

Aurre izen emate hau egin ondoren, Patrimonio para jóvenes-ek konfirmazio email bat bidaliko du. Partehartzaileek abuztuak 21era arte izango dute falta den kopurua ingresatzeko, hau da, 38€, eta honela izen ematea prozesua amaitzeko.

DATA

2018ko abuztuak 28 eta 29

LEKUA

Palacio Jauregia
Calle Mayor, 19
31730 Irurita, Navarra

PREZIOA

83€ B.E.Z. barne

KONTU KORRONTEAK

Banco Sabadell:
ES11 0081 4250 68 0001538258
Caixabank:
ES12 2100 3693 2221 1541 9747

ORDAINKETA KONTZEPTUA

Jornadas Arte Irurita

INFORMAZIO GEHIAGO

patrimoniojovenes@gmail.com
lg@luciegeffre.com

2018ko abuztuak 28 eta 29
Palacio Jauregia
Irurita, Nafarroa



Egitaraua

ABUZTUAK 28, ASTEARTEA

- 9:30 - 10:30** **BERTARATUTAKOEI ONGIETORRIA TALLERREAN**
- 10:30 - 14:30** **MARRAZKETA TAILERRA ERRETRATUARI BURUZ I** LUCIE GEFFRÉrekin
Azken ordu erdian Lucie-rekin lanaren emaitzari buruz jardungo dugu. Artista bakoitzak bere portfolioa eraman dezake gainontzekoek bere lana ezagun dezaten. **Informazio xehatuago tailerrari buruz ondorengo orrian.*
- 14:30 - 18:00** **BAZKARIA ETA DENBORA LIBREA**
- 18:00 - 19:30** **IRURITARA BISITA GIDATUA** JOSÉ LUIS FRANCHEZekin
- 19:30 - 20:15** **MINTZALDI-MAHAI INGURUA**
Baztanek eta nafarroar figurek nola lortu zituzten Goyenechek, ekintzaile izugarriak izan zirenak, horrelako ondasunak, nola egin zuten lan Ameriketara eta Madrilera eta Nafarroako mezena handiak izatera nola iritsi ziren.
- 20:30 - 21:30** **PALACIO JAUREGIRA BISITA** JOSÉ MARÍA HUALDERekin
- 21:30 - 23:00** **LORATEGIAN AFARIA ETA MINTZALDIA**
Nola barneratu arte munduan.

ABUZTUAK 29, ASTEAZKENA

- 11:00 - 14:00** **MARRAZKETA TAILERRA ERRETRATUARI BURUZ II** LUCIE GEFFRÉrekin
- 14:30 - 18:00** **HAUTAZKO BAZKARIA ETA DENBORA LIBREA**
- 18:00 - 20:00** **HAUTAZKO BISITA ELIZONDORA ETA AGURRA**

PINTURA TAILERRA LUCIE GEFFRÉ-REN ERRETRATUAREN INGURUAN

2018KO ABUZTUAK 28 ETA 29 PALACIO JAUREGIAN, IRURITA, NAFARROA

Nori dago zuzendua

- Arte ikasketak dituzten edo ez dituzten gazteei, jakin min artistikoa dutenei, artea lanbide bezala eduki edo ez galdetzen dutenei, erretratuak margotzeko interesa edo jakinmina dutenei.
- Erretratuak margotzen ikasi edo hobetu nahi duten ez ain gazteei, euren lana ezagutzera eramateko aukera eduki nahi dutenei.

Edukia

Lehenik eta behin, Lucie Geffré-k Palacio Jauregian ikusgai dauden bere kuadroen xehetasunak azalduko dizkie parte hartzaileei. Ondoren, erretratuaren inguruan hitz egingo da maisu zahar eta garaikideen hainbat eredu jarriaz. Gure arreta konposizioan, balioaren kontrastean eta azalaren tonuan jarriko dugu.

Jarraian, jardinean eta landuko dugun erretratuaren aurrean bilduko gara. Hitzaldi labur horren ondoren, parte hartzaileak margotzen hasiko dira eta Lucie Geffré banan banan joango da artelan bakoitzaren aurrerapenaz bere sortzailearekin hitz egiten. Tailerraren bigarren egunean, beste erretratu bat egingo da mihisean, kasu honetan ere modelo bat erabiliz.

Tailerra praktikoa izango da eta egunean zehar Lucie Geffré-rekin artista izatearen inguruan, bakoitzaren lana ezagutzera eramatearen inguruan, artelanak saltzearen inguruan, erakusketa bat egitearen inguruan, sareak sortzearen inguruan, lehiaketetan parte hartzeaz eta ostatu artistikoen inguruan hitz egin ahal izango da.



Materialak

Pintura akrilikoarekin egingo da lan. Parte hartzaile bakoitzak erabili oi dituen materialak ekarri ditzake (pintzelak, koloreak etab.).

Parte hartzaileek ekarri beharreko materiala: easel bat, 61 x 46 cm-ko bi mihisel, paleta bat, xafla fina, trapuak, tamaina ezberdinetako pintzelak (4 eta 12 artekoak) eta eskuila bat.

Gomendatutako koloreak: ultramarina urdin iluna, kadmio gorria, sienna ilundua, sienna naturala, itzal ilundua, itzal naturala, marfil beltza, zuria, napoleseko horia. Gomendioak besterik ez dira, artistak gustukoago dituen beste kolore batzuk baditu, ekarri ditzake.

Networking

Asteartea 28ko afariaren ondoren, Lucie Geffrék nahi duten parte hartzaileekin entrebista informala izango du hauek ekarritako portofolioen ingurua hitz egiteko. Interesa duten artistek, informazio gehiago eska diezaiokete Lucie Geffré-ri bere e-mail helbidearen bitartez: lg@luciegeffre.com